PDF irisgarria

Irakurketa Errazean

Pirinioetako gotorlekua

Pirinioetako Gotorlekua

Pirinio Mendietan dago

eta Kantauri itsasotik Mediterraneo itsasora doa.



Mapa honetan

marra beltz bat ikus dezakezu. Pirinioetako Gotorlekua da.

Frankismoaren garaian frankistek

preso asko lan publikoetan

bortxazko lanak egitera behartu zituzten,

adibidez, errepideak, zubiak edo eraikinak egiteko.

Bortxazko lanak pertsona batek behartuta

eta dirurik jaso gabe egiten dituen lanak dira.

Frankistek bortxazko lanak

presoak umiliatzeko eta zigortzeko,

obrak merkeagoak izateko

eta frankismoaren pentsatzeko modua inposatzeko

erabiltzen zituzten.

Bortxazko lanak Errepublikanoei
haien bizitza frankismoaren Espainia Berrian
nolakoa izango zen erakusteko
erabiltzen zituzten ere.
Gogoratu Errepublikarrek
Gerra Zibila galdu zuten pertsonak zirela.

1939. eta 1958. urteen artean
frankistek Pirinioetako Gotorlekua eraikitzeko
milaka preso behartu zituzten
bortxazko lanak egitera.

Presoak oso egoera txarrean bizi ziren
eta frankisten aldetik indarkeria asko jasaten zuten.

Pirinioetako Gotorlekua
Espainia Frantziatik bereizteko harresi bat da.
Harresia bunker askoz osatuta dago.
Bunkerra etsaiaren erasoetatik babesteko
lurraren azpian egiten den obra da.

Pirinioetako Gotorlekuak
ia 500 kilometroko luzera du
eta Gipuzkoa eta Nafarroa artean
1.800 bunker baino gehiago ditu.

Pirinioen Gotorlekuak Espainia Berria
Frantziatik sar zitezkeen
etsaiengandik defendatzeko balio zuen.

Nafarroako Memoriaren Institutuak
Muga Gotortua Nafarroako Pirinioetan proiektua sortu zuen
Memoria Duten Eskolak programaren barruan.

Proiektu honek
Nafarroan dauden bunkerrak berreskuratzeko balio du
horrela han gertatutakoa gogoratzeko balio diguten
leku bihur daitezen.
Bunker horiek berreskuratzeko
Nafarroako Gobernuak
gazteentzako boluntariotzar-esparruak antolatzen ditu.

Esteka honetan
Pirinioen Gotorlekuari buruzko
dokumental bat ikus dezakezu.
Nafarroan dauden bunkerrei buruzko
informazio gehiago ere aurki dezakezu.
Klikatu hemen:
https://www.espaciosdememoria.com/es/lugar-de-memoria/fortificacion-del-pirineo

Hemen bunker baten argazkia ikus dezakezu:



Hemen boluntarioen argazki bat ikus dezakezu
bunker baten barruan.
Argazkian Ana Ollo,
Herritarrekiko Harremanetako sailburua,
eta Josemi Gastón,
Memoriaren Nafarroako Institutuaren zuzendaria,
agertzen dira.

